***IZARRAK GOIAN***
MUSIKA: **Nerea Urbizu**
LETRA: **Gorka Urbizu**
ABESLARIA: **Nerea Urbizu**

IZARRAK GOIAN
OHERA GOAZ
LAGUNEKIN AMESTERA.
IZARRAK GOIAN
KATUAK LOTAN
EGUN EDERRA IZAN DA.

IZARRAK KONTATZEN HASI TA TXIKI-TXIKI SENTITZEN NAIZ
BAT BI HIRU LAU HAMAIKA MILA... EZIN GUZTIAK ATZEMAN

IZARRAK GOIAN
MUXU BAT EMAN
IRRI BATEKIN LOTARA.
IZARRAK GOIAN,
BELDURRIK EZ DA
ARGIA ITZALI TA FESTA.

KONTATZEN HASI ETA TXIKI-TXIKI SENTITZEN GARA
BAT BI HIRU LAU HAMAIKA MILA... ARGI ZERU ERRALDOIAN

IZARRAK GOIAN
HONTZAK SASOIAN
KILKERRAK KANTA TA KANTA.
IZARRAK GOIAN
DIR-DIR EGINAZ
ZAINTZEKO GURE MUNDUA.

IZARRAK KONTATZEN HASI TA TXIKI-TXIKI SENTITZEN NAIZ
BAT BI HIRU LAU HAMAIKA MILA... EZIN GUZTIAK ATZEMAN
IZAR BATETIK BESTERA SALTO EGIN NAHI NUKE NIK
TA ERORTZEN BANAIZ BADAKIT HAN EGONGO ZARELA BETI

IZARRAK GOIAN
DIR-DIR HAN GOIAN
IZARRAK IZAN, IZARRAK IZAN
IZARRAK GOIAN, IZARRAK IZAN
IZARRAK IZAN, IZARRAK IZAN
IZARRAK GOIAN...